

EKONOMIA. Europako Kalidadearen Astearen barruan ekitaldiak egingo ditue Ezkerraldean

Enpresen kalidadea aztertuko dabe Inguraldek gertau dauen jardunaldian

AENOR, EIKE, LKS eta enpresa alorreko zenbait ordezkariak parte hartuko dabe topagunean


Irune Berro

Barakaldoko eta Ezkerraldeko enpresen kalidadea aztertuko dabe Inguraldek egingo dauen *Egiaztapen Bateratua* izeneko jardunaldian. Europako Kalidadearen Astearen barruan egingo dabe, datorren astelehenean. Eta AENOR, EIKE, LKS, Sukia eraikuntzak eta Ezkerraldeko enpresetako ordezkari batzuek hartuko dabe parte. Eurekin batera izango dira Barakaldoko alkate Carlos Pera eta Inguraldeko presidentea Diego Moyano eta zuzendari Javier Rodriguez. Urban-Galindoko enpresa parkean egingo dabe jardunaldia, Ilgner eraikinean, arrastiko lau eta erdietan.

Industrializazioa amaitu eta sasoi barriei aurre egiteko bidean enpresen kalidadea aztertuko dabe. Eta baliabideak optimizetako oinarrien ganean berba egingo dabe. Hori guztiori, enplegua sortzeko ikuspegitik jorratuko dabela azaldu eban Moyanok, atzo.

Kalidade sailetan behar egiten dauen jenteari, prebentzioan eta ingurumen kontuetan behar egiten dabenei eta enpresaburu eta interesa daukien pertsonen zuzenduta dago *Egiaztapen Bateratua* jardunaldia. Halan, enpresa txiki eta ertainak izango ditue ardatz, topagunea garatzeko orduan.

Inguraldek egingo dauen ekitaldi horrezaz ganera, beste ekitaldi batzuk be egingo ditue Ezkerraldeko alkarteek, eskualdeko hainbat herritan. Izan be, Euskal Herrian *Aldaketan Aurrendariak* izenezagaz hartu dabe Europako Kalidadearen Astea. Eta zehazkiaren 11tik 22ra bitartean jardunaldiak, mahai inguruak eta berbalak egingo



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Inguraldeko presidentea Diego Moyano *Egiaztapen Bateratua* jardunaldiaren aurkezpenean, atzo.

ditue enpresa alorreko hainbat alkarteak. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak eta kalidadean behar egiten dauen Euskalit fundazioak bultzatu dabe.

Kalidadean aurrendariak

Aldaketan aurrendariak izentau dabe kalidadearen astea, arra-

zoi zehatz bategatik: Bizkaiko eta Euskal Herriko enpresak kalidadean aurrendariak diralako. Euskalit fundazioaren datuen arabera, Euskal Herriko 2.800 enpresek daukie kalidadeko ISO 9001 arauaren ziurtagiria. Eta hamabi tokik kalidade turistiko Q-a. 110 enpresek, gane-

ra, kalidade bikaina adierazten daben diplomak ditue. Bestalde, 550 pertsona Euskaliteko ebaluazio klubeko kideak dira. Zilarrezko 21 Q eta urrezko 7 eskuratu ditue beste hainbat enpresek. Eta hori gitxi balitz, Europako Kalidadearen Fundazioak bertoko lau enpresa saritu ditu.

Bestalde, Inguralde berak be kalidade errekonozimendu bat jaso dau, orain gitxi: ISO 9001:2000, hain zuzen. Eta Inguraldek azken urteotan egin dauen beharra nabarmendu eban Moyanok. «Enplegu eta enpresen jarduna sustatuz, industriaren krisiari aurre egin eta aro barrira egokitu dalako».

NORI ZUZENDUTA

Kalidade sailetan eta prebentzioan behar egiten dabenei eta enpresaburuei zuzenduta dago jardunaldia

EDUKIAK

Enpresa txiki eta ertainek baliabideak optimizetako oinarriak emongo ditue, enplegua sortzeko ikuspegia galdu barik

BARAKALDO

Urtea amaitu aurretik hasiko ditue herriko azokako lehen solairuko obrak

I.B.

Urtea amaitu aurretik hasiko ditue herriko azokako konpontzeko obrak, baina lehenengo solairukoak bakarrik. Eraikin osoa barriztuko dabe: kanpotik eta barrutik. Goiko solairuan gimnasio bat egingo dau Fitness First kateak. Eta behekoa azokoa lez mantenduko dau Barakaldoko Udalak. Hogeita lau saltoki ipiniko ditue. Halan, dendari bakotzak 72.000 euro ordaindu behar ditual, adierazoz eban Inguraldeko presidentea Diego Moyanok, atzo. Barakaldoko Udalak ez dau ezer pagauko. Herriko azokako dendariak, baina, ez dagoz konforme Udalak hartu dauen erabagiagaz. Eta Bilboko Erriberako azokako adibidea aitatu dabe: «azokoa barriztu ebenean Bilboko Udalak dirulaguntza nabarmenak emon eutsezan bertako dendariei. Zergaitik ez dau Barakaldoko Udalak be hori egiten», esan dabe. Ez dabe ulertzen zelan azokoa Udalarena izanda ez dauen obrearen zati bat, behintzat, ordaintzen.

Fatxadea eta teilatua mantenduko ditue

Azokoa barriztuko proiektua orain gitxi amaitu dabe. Eta aztertzen dabilz. Halan, fatxadea eta teilatua mantenduko ditue eta barruko zutabeak be bai. Fatxadea aspaldiko eraikina dalako eta herrian sano ezaguna, eta teilatua, argia sartzeko daukazan sabaileihoak mantendu gura dituelako.



Saab guztiak dira
**turbo.
diesel.**
eta batzuk, gainera,



Orain, Saab-ek turbodiesel teknologia aurreratuen eskaintzen ditu, bai eta 176 ZPraino ere, kontsumo txikiarekin prestaziorik handienak lortzeko. Gidatu **9-5 TiD Saab Gama Berria** 28.550 €tik (4.750.320 pta.) *

Saab **4urteko**
bermea, km mugarik gabe

2.2 TiD eta 3.0 V6 TiD turbodiesel motorrak. Sedan eta Station Wagon. 3 ekipamendu maila. BEZa, matrikulazio zerga eta garraioa barne.

ANATA MOTOR. Bilbo-Asua errep., Fatima industrialdea, z/g (Enekuriko gaina). Tel: 94 474 57 80. Erandio.